


- **Inkesta:** Pentsioen erreformaren inguruko iritzia
- **Zer berri:** Gurasoek haur eskolan plaza gehiago eskatu dituzte

soraluzeko
hamabostekaria **237.** alea
2011ko otsailaren 11n

PIL-PILEAN

Euskal Herri
EUSKALDUNA

ERAIKI!



EUSKARAZ
bizi,

SASIAK ETA LARRAK EBATEN

Unai Larreategi eta Olaitz Lasa,
EHE-ko kideei elkarrizketa

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5, EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



Martxoak 12 zapatua

Txooootx!!

Pil-pileanekin sagardotegira irteera



- Bazkaria + autobusa
35 € (bazkideentzat), 40 € (bazkide ez direnentzat).
- 12:30ean Estaziñotik.
- Txartelak erosteko Iratxo, Arrano edota Gaztelupen. (Azken eguna Martxoak 6).



MAITE ETXEBERRIA



OSKAR ELIZBURU

RRT(x)IROA

Erretiroa gora eta erretiroa behera, besterik ez dok entzuten azkenaldi honetan. Hitzari berari begiratzen badotsak, esanahi ugari dittuala ikusiko dok: goiz edo berandu erretiratzea=oheratzea, egun batzuetarako erretirora joan=gogoeta espirituala, zeozer erretiratu=baztertu, erretiroa hartu=jubilatu...

Azken esanahi horrekin lotutakoak hautsak harrotu jittuk egun hauetan, eta nola gainera! Greba orokorra deitza eta egitea ekarri jok barren. Pentsio erreforma izenarekin bataiatutakoaren inguruan najabik. Errefomaren arabera, erretiroa 67 urtera luzatuko juek, 65 urterekin erretiratu ahal izateko 38,5 urte kotizatu beharko juau -orain 35 urte kotizatu behar dok-, pensioa kalkulatzeko azken 25 urteak hartuko dittuk kontuan -orain azken hamabostak hartzen dittuk-, pensioa kobratzeko urte gehiago lan egin beharko juau eta poltsikoratzen doguna eskasagoa izango dok.

Ai ene! Bati baino gehiagori ileak tente jarri jakozik hau entzutean. Bizi guztian lanean eta oraindik urte gehiago egin behar lanean erretiroa hartzeko? Nola eutsiko jotsek lanean hainbeste urtetan jubilazioarekin amesten dabenek?

Horrelako egoerak beste batzuegan erretiratzeke gogo sortarazi jok. Pentsio sistema honetatik erretiratzeke eta zerbait berria sortzeke, geure neurrikoa, duina, bidezkoa eta banaketa logikoan oinarritutakoa. Izan be, denok gaittuk gaiari buelta batzuk emateko gai eta baita daukaguna hobetzeko be.

Eta hik zer egingo dok? Erretiratu ala erretiroa hartu?

“

**Pentsio
sistematik
erretiratzeke
gogo sortarazi
jok**

Maite Etxeberria

**Ederra plana
datorkiguna**

Oskar Elizburu

”

Danba, tirua don jaso doguna! Erretiratu biharrik ez!

Tira, lehen be ez najaukanan erretiro ganorazkorik jasotzeke esperantzarik! Bizitzako erabakien ondorioz (AEKtik eta AEKra bizitza, adibidez), 29 urte lanian jardun eta 14 besterik ez jaukanat kotizatuta. Ederra panoramia 50 urtekuen *kintto* bazkarira juan bihar dan batendako! Ikusten al don hire burua ispiluan?

Kontuak etaratzen hasi eta, zenbat urte kotizatu bihar dan pitorik be ez jatan inporta, nere egoeran bost axola, potxola! 67 urterekin jubilatzianak, ostera, egonezina ekarri jostan. Kristo guztixa 60 urte inguruan jubilatzen ikusi eta gero, toma!

Uste jonat kuestinua pensio pribatuetan daguala; gero eta zalantza gehixago orduan eta pensio plan gehixago. Dirua agintari eta akulu! Egiña daukan *planen*

bat? Ederra plana datorkiguna!

Txarrena don, batzuek iruzurra egitteko aukeria dauken arren, langiliok zer horretatik ondo oratuta gauzkatela. Txintxo-txintxo ordaindu bihar zerga eta *ierrepefe* txarri guztixak. “Aukeran artzain juatia hobe!” entzun ei don; ai inuxentiok, Ogasunetik ez jaon ihes egiterik (guretake behintzat)!

Baina, zer gabina gu, *halako gaztiak izanda*, halakuekin asaldatzen? Gu lanerako jaixo gaittun, Maitetxu. Guria idatzita jaon izarretan, zuztarretan, olatuen bitsetan... Guk txindurrixen patua jaukanau, lan eta lan (sinisten dogun horretan)

jo eta su, egunen baten norbaitek erretreta egokixa euki deixan. Eta horretatik erretiratzeke asmorik ez jaukanat neuk. Jubilaziño billa ez jabin txidurrixa; Zenbat *txitxar* jaon zain, gure aurretik?

Goguan hartzeko

“Honek ekarri, honek ipini, honek gatz eman, honek probatu, honek dana jan”
Gotzon Garate, euskal atsotitza



GUTUNAK

Hezkuntzako azpiegituren inguruko gogoeta

Legealdiko azken txanpan gauden hontan gure taldeak hezkuntzako azpiegituren inguruko gogoeta burutu zuen urtarrileko ple-noan. Soraluzen haur kopuruak gora egin du eta datua baikorra da. Igoera honek ordea, hezkuntza zerbitzuei dagokionean eragin zuzena dauka. Konkretuki haurtzaindegiaren, ludotekaren eta jangelaren kasuetan. Gaur egunean Soraluzen ditugun azpiegiturak txiki gelditu dira. Honen harira hezkuntzako batzorde burua den Roke Akizuri, ea zer neurri hartu behar dituen galdetu genion. Bestalde frontoiko eraikin zaharreko berriztapen lanak ere zer egoeratan

dauden jakin nahi izan genuen. Batzorde buruak lanean ari direla baina oraingoz ezer konkreturik ezin dutela aurreratu erantzun zigun. Erantzun honek ez digu ezer argitzen, zalan-tza gehiago sortzen dizkigu. Erantzun berdina eman behar al die herriko gurasoei ere? Hauteskunde kanpainen institutuaren eta frontoiko eraikin zaharraren zahar berritzea egingo zuela hitz eman zuen Akizu jaunak. Lau urte ondoren zaharrak berri. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazioa gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Otsailak 13 Torturaren Aurkako Eguna

1981. urtea zen Joxe Arregi Zizurkilgo herritarra atxilotu eta 9 egunez gogor torturatua izan zenean. Komisaldegiko infernua atzean utzi zuen 9 egun inkomunikaturik igaro eta gero, baina Carabanchelgo espetxeko ospitalean sartu behar izan zuten benetan egoera tamalgarrian. Bere gorputza ubelduraz eta erre-duraz josita zegoen, eta gutxi iraun zuen bizirik. Otsailak 13 hartako bere hitzek ongi adierazten dute Joxe Arregik pairatu behar izan zuena. Hilabeteen joan etorrian tortura salaketak pilatuz baitoaz epaitegietako artxiboetan. Euskal Memoria Fundazioak jaso dituen datuen arabera azken 50 urteotan 10.000 euskal herritar

baino gehiago izan dira basakeria hau sufritu dutenak. Euskal Herritarren aurkako errepre-sio eroan tortura egunero erabili baitute unean-unekeo gobernu ezberdinek. Tortura sistematikoa dela esaten dugu, eta atzean utzi dugun urtea da esaten dugunaren adibide argia. 2010. urtean 63 euskal herritar torturatu dituzte Ertzainek, Guardia Zibilek eta Espainiako Poliziek. Inkomunikazioa = torturatzeko borondate politikoa. Dei egiten dizuegu beraz, otsailaren 13an, Plaza Barrian 13:00etan egingo den kontzentrazioa.

Soraluzeko Amnistiaren Mugimendua

 PIL-PILEAN

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Eider Varela

Psikomotrizitate naturala

Azkeneko urteotan, batez ere Haur Hezkuntzan, indar handia hartzen ari den praktika da psikomotrizitatea, psikomotrizitateak haurrari bere garapen kognitiboan eta emozionalean laguntzen diolako; komunikazioa, sormena, espazioaren antolamendua... sustatuz. Psikomotrizitatearen mundua oso zabala izanik, gaur egun, B. Aucouturier-en metodologia jarraitzen da ia eskola gehienetan. Trebetasun maila, azalpen teoriko eta jarduteko era ezberdinak egon arren, praktika honen ardatza haurraren garapen integralean laguntzea da. Psikomotrizitatearen jarduna gauzatzeko garaian bi aspektu hartu behar dira kontuan: esparru fisikoak (gelaren antolaketa, materiala...) eta bestetik giza baliabideak (irakasleak, psikomotrizistak...). Espazio honetan haurrek nahi duten guztia egin dezakete min fisikoa, morala edo txikizioa izan ezik, beti ere, helduaren begiradapean, euren sormen eta ekimena bideratuz. Orain goazen urte batzuk atzera... Gogoratzen zuhaitzetara igotzeko txapelketez? Eta izkina batean, ezkutuan, egiten genituen etxetxoek? Alde batetik bestera korrika pasatzen genuen denboraz? Sekretuak gorde eta jolas berriak asmatzen genituen garaiez? Hau ez al da ba, psikomotrizitate naturala? Beraz, utzi alde batera *nintendo* eta *makinita* guztiak eta goazen denok jolastera!

Maria Jesus Zabaleta botikaria zigarro elektronikoaz

Urte berriko asmoa izan ohi da erretzeari lagatzea baina aurten inoiz baino gehiago hurreratu zaio Maria Jesusi botikara erretzeari uzteko sendagai eske. Horrelakoetan nikotina partxeak edo txikleak gomendatzen ditu berak, zigarro elektronikoa baino.

Igarri dozue Tabakuan Lege berrixan ondoriorik?

Aurten inoiz baino bezero gehixago etorri da gurera. Zigarro elektronikua ekoizten daben etxiak hornidura bare geratu dira adibidez. Askok botiken preziuak galdetzen dittue aurretik eta preziuak galdetzera datozenak, zaila izango dabe erretziari lagatzia. Inungo baldintza bare heldu bihar jako erretziari lagatzeko asmuari.

Tabakua lagatzeko ze gomendatzen dozue?

Erretzailiak nikotinian mendera jausi dira. Nikotina biharra saihesteko nikotinadun partxiak, txikliak edo goxokixak gomendatzen dittugu. Partxiak azaletik gorputz barrurantz barreiatzen dabe dosixa, poliki-poliki. Txikliak berriro, antsietate momentuetan murtxikatzeke dira. Antsietate haundixa daukeneri medikuak botikak errezetatzen dotsez. Zigarro elektronikua laguntza psikologikorako besterik ez da.

((ENTZUTEKUAK))

Zigarro elektronikua barra-barra saldu dala diñozu. Zeuenian be bai?

Bai Soraluzen be asko saldu da. Komunikabidien bittartez izugarritzko propagandia egin jako zigarro elektronikuari eta herriarrak zuzenian hau erostera etortzen dira gurera. Gure lana da baina zigarrua laguntza moduan erabiltzeko dala esatia, gainontzeko tratamenduen osagarri moduan. Zigarro elektronikekin ez dotse erretziari lagako.



Tabakuan kontrako kontzientziatuak oinarri sendua dauka?

“Nikotina biharra saihesteko partxiak, txikliak edo goxokixak gomendatzen dittugu”

Tabakua munduan dagan drogarik hedatuena eta kaltegarrixenetakua da. Errez erosi leike eta oin arte normaltasun osoz kontsumitu geinkian. Zaila da baina tabakua lagatzia eta nahi izatia da gakua.

Tabakua gustu haundiz erosten da, bizixua da. Lagatziak ostera, esfortzu haundi bat egittia suposatzen dau eta ez da gustuz egitten. Erretziari lagatzeko nahixa eta ahalegina konstantziaz uztartu bihar dira. Beti be, epe laburrera begira. “Gaur ez dot tabakorik erre, bihar bez!”.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

MENDIZABAL
okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Merkatariek eta industria sektoreak babestu zuten greba

ELA, LAB, EHNE, HIRU eta EILAS sindikatuek urtarri-laren 27an deitutako grebak eragina izan zuen Soraluzean. Jarraipen zabalena merkatariek eta industria sektoreek egin zioten. Soraluzeko LAB sindikatuaren arabera, merkatarien %100ak bat egin zuen greba deialdiarekin. Industria sektorean berriz herriko enpresen % 80a itxita egon zen, besteak beste, GOL,

Talleres Urrestarazu, Laga Industriak, FER Industriak eta Pascual Txurruka enpresak. Hezkuntza sailean berriz, Plaentxi Ikastetxean irakasleriaren %51'28ak bat egin zuen lanuztearekin. Soraluze Institutuan, gutxieneko zerbitzuak ezarrituzten. Anbulategiko datu-rik ez dute jakinarazi, baina Osakidetzaaren arabera, Debarrenean ia %20ak egin zuen greba.

LAB sindikatua pozik emaitzarekin

Soraluzeko LAB pozik agertu da grebakizandako jarraipenarekin: *“Balorazio oso ona egiten dugu greba herrian igarri zelako. Gainera, Donostiako mobilizazioan zein Eibarren egindako bailarako manifestazioan ere jendetza handia batu zen”.*

Herri babesa torturatuei

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak otsailaren 13ari begira (Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna) 2010. urtean atxilotu dituzten euskal herritarren artean, 63k torturak salatu dituztela jakinarazi du, “tartean Aniaiz Ariznabarreta eta Ainara Ladron eibartar eta elgoibartarraren tortura deklarazio basatiak daude”. Domeka honetan, otsailak 13, mota guztietako torturak salatu eta giza eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzeko elkarretaratzea egingo da eguerdiko 13:00etan Plaza Barrixan.

Atzegik boluntarioak behar ditu

Atzegi (adimen urritasuna duten pertsonen familien Gipuzkoako Elkarte) boluntario bila dihardu, adimen urritasuna dutenen 16 urtetik goragokoen aisialdia sustatzeko. Eibarren zapatu arratsaldetan egiten diren aisialdi ekintzetan laguntzeko boluntarioak behar dira, afariak, poteoa eta eskulanak egiteko besteak beste. Boluntario izateko ez da ikasketarik behar, nahikoa da ilusioa izatea. Bertan parte hartzeko 943 423942 telefonora (Itsaso) deitu behar da edo arantzeta@atzegi.org helbidera idatzi.

Iturria: ... eta kitto!



Irudian, Eibarren egindako manifestazio jendetsua.



Txuri-urdin elkartearen 8. urteurrena

Herriko Txuri-urdin taldearen jarraitzaileak otsailaren 16an batuko dira elkartearen 8. urteurrenako festa prestatzeko. Batzarra Txoko tabernan izango da, arratsaldeko 20:00etan.

Herri babesa EHEkoen manifestuari

“Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe” lelopean, zapatuan manifestazioa deitu du EHEk. Deialdiari babesa eman eta bat egiten duten 30 herritar inguru eta eragile Plaza Barria batu ziren talde argazkia ateratzeko. Autobusa arratsaldeko 16etan irtengo da Estazio kaleko geltokitik. Izena Arrano eta Gaztelupe tabernan eman daiteke.





ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua



Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeberria Txurruka
K.Z. 20.000.752



HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Herriko gazteak absolbitu egin dituzte

Abenduaren 14an zen egitekoa Eibarren lau soraluzetarren aurkako epaiketa iaz Gaztañerre bezperan gaztetxe kanpoko horma margotzea leporatuta. Gazteak ez ziren epaiketara agertu, ezta Udala ere. Kasua artxibatzeko zain zeuden herriko lau gazteak eta hala izan dadila eskatu du Eibarko epaitegiko bigarren instrukzioko epaile den Raquel Garciak, lau gazteak absolbituz.



Otsailaren 18tik aurrera erdigunea oinezkoentzat

Jose Luis Arizaga alkatearen esanetan, eta ondo bidean, otsailaren 18ko eguerdiko 13:00etatik aurrera herriaren erdialdea oinezkoentzat izango da. Jaiegunetan egun guztian egongo da erdigunea ibilgailuei itxita. Astegunetan ondorengo puntuetan itxiko dituzte kaleak: Santa Ana kaleko "Ufala" taberna parean, Gabolats kale hasieran, Etxaburueta kaleko "Pub" aurrean eta "Belarrak" denda parean. Zubi Nagusian aparkatzeko aukera egongo da baina asteburuan, eguerdiko 13:00etan Zubi Nagusia ere itxi egingo da.

Zuzenketa

Azken alean argitaratutako informazio okerra zuzentze aldera, mandoak lortzeko baldintzak hauek dira: eskatzailea peatonalizatuko den guneko negozio edo garaje baten jabea edo erabiltzailea izan behar da. Larrialdi kasuetan ibilgailuek mandoak izango dituzte (Osakidetzak, Gurutze Gorriak, Suhiltzaileak eta Ertzaintzak). Oinezkoentzat izango den eremuan mugikortasun arazoak dituzten herritarrei ere urrutiko agintea banatuko zaie, Gizarte Ongizate sailaren bidez.

Gurasoek hezkuntza azpiegiturak handitzeko eskaera egin diote Udalari

Azken udalbatzarrean eska-ri eta galderen atalak izan zuen protagonismo handiena. Ume txikiak dituzten hamar ama inguru plenora hurbildu ziren eskaria egitera. Horietako bat zinegotziei zuzendu zitzaizen hezkuntza azpiegituren gainean eta zehazki haurreskolaren gainean galdetzeko. Euren ustez, gaur egun Soraluzen dagoen eskariarekin eskaintza txiki egia da eta herriko benetako beharrak identifikatu eta arazoari irtenbide bat topatzeko eskatu zien. Roke Akizu Hezkuntza Saileko zinegotziak aurreko udalbatzarrean esana errepikatuz, kanpo finantzaketen zain daudela erantzun zien gurasoei, eta krisi ekonomikoarekin are zailagoa dela arazoari irtenbide bat ematea. Bere berbetan, dagoen eskariari erantzun ahal izateko plaza kopurua bikoiztu egin beharko litzateke.

Gai honek lehentasun osoa duen arren, aitortu zuen ez dela ausartzen irailera begira ezer agintzera. Jose Luis Arizaga alkateak beharra ikusten duela esan zuen eta aukera bat herriko lokal hutsak erabiltzea izan daitekeela.

Gurasoak otsailaren 14an irtenbide bila

Momentuan, haurreskolan 21 plaza daude. 0-1 urte bitarteko umeentzat 8; 1-2 urte bitartekoentzat 13. 2010ean 40 ume jaio ziren. Roke Akizuk gurasoei Hezkuntza Batzordean parte hartzeko gonbitea luzatu zien. Gurasoek berriz, deialdi bat egin dute datorren otsailaren 14an, 0-2 urte bitarteko umeen gurasoak eta haurdun daudenak bildu eta denen artean arazoari irtenbideak aurkitzeko. 19.00etan Allegro Elkarteetan izango da hitzordua.



Udaletxeko saio aretoa amez bete zen azken udalbatzarrean.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



Discinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Otsailaren 26an Euskaldunon Elkarteek Mugimenduaren I. Kongresua egingo da Bilbon. Egun osoko egitaraua izango du, gogoeta eta jaia uztartuko dituena. Azken hilabeteotan Euskara Elkarteek Federazioak bultzatuta Euskal Herri mailan garatu den hausnarketaren amaierako ekitaldia izango da.

EGITARAUA

9:30ean Kongresua (Bilboko Alhondigan)

14:00etan bazkaria

19:00etan jaia (Kafe Antzokian)

Hausnarketa horretan bi ondorio nagusi azaleratu dira, batetik euskara elkarteek egitekoak oraindik ere asko (eta garrantzitsuak) direla eta bestea, fase berri batean sartzeko gogoia dagoela euskara elkarteetako eragileon artean. Kongresuan Euskal Herriko elkarte guztietako kideak biltzeko apustua egin nahi du federazioak, euskaldunon bilgune den mugimendu honen etorkizuna denon artean irudikatuz garai berri bati hasiera emateko. Otsaileko bilkura zabala mugimendu honentzako mugarri garrantzitsu bat izan daitekeelakoan, ilusioz ari gara lanean. Datozen hilabeteetarako berriz, Pil-pilean Euskara Elkarteak bere bazkideekin batera hausnarketa orokor bat egiteko prozesua prestatzen dihardu.

AUTOBUSA

Pil-pilean Euskara Elkarteak ere izango da Kongresuan eta Debabarreneko gainerako Euskara Elkarteekin batera autobusa antolatu du. Izena eman nahi izanez gero, deitu 943751304 telefonora edo idatzi euskara@pilpilean.com helbidera.

Informazio gehiago: www.topagunea.org

EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN EDITORIAL BATERATUA

EUSKARAZKO HEDABIDEAK, BESTE JAUZI BATERAKO ORDUA

Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskari anitzez. Baina ez da nahiko. Nafarroan eta Iparraldean erakundeek sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gureen aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerio soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

Euskarazko Komunikabide Ez Publikoak



Soraluzeko BHIko ikasleak EA21ean

Soraluzeko BHIko ikasleak EA21ean dihardugu. Oraingoan, zeregina, honako dekalogo hau ateratzea izan da, gure ekintzak ingurumenaren onurarako izan daitezten.



JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

- 1.- Gelan inor ez dagoenean, eguzki-argia dagoenean edo behar ez denean argiak itzali.
- 2.- Berogailua edo aire girotua piztuta dagoenean leihorik ez ireki.
- 3.- Etxeko tresna elektrikoak ez utzi egonean. Etengailutik itzali.
- 4.- Bilgarri asko duten produktuak ahalik eta gutxien erosi.
- 5.- Natura-ondasunak erabiltzeko aukera berberak izan ditzagun zaindu, babestu eta bermatu.
- 6.- Tokiko ekonomia bizia bultzatu, ingurumenari kalterik egin gabe.
- 7.- Baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabili eta kontsumo iraunkorra bultzatu.
- 8.- Udal-kudeaketarako programetan parte hartu, bai diseinuan, bai ezarpenean, bai jarraipenean.
- 9.- Bakean, justizian, berdintasunean, garapen iraunkorrean eta klima aldaketan dugun erantzukizuna gure gain hartu.
- 10.- Papera, plastikoak eta beirak berrerabili, birziklatu eta batez ere birziklatutako paperaren erabilera bultzatu.

“Euskaldunok euskeraz bizitzeko hautua egin bihar dogu”

Unai Larreategi

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak manifestua kaleratu berri du “Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe” izenburupean. Horrela “euskaldunak” bizi duen menpeko egoeratik ateratzeko pausoak ematea proposatzen dute. Bihar manifestazioa egingo dute Donostian, arratsaldeko 17.00etan Bulebarretik irtenda. Olaitz Lasa eta Unai Larreategi Euskal Herrian Euskarazeko kideekin berba egin dugu euskaldunen inguruan.

31 Urte bete dittuzue. Zegaittik sortu zan EHE?

Orduan Hego Euskal Herrixan trantsizino fasian ei genden. Askok uste zebeu egoera euskerian kontrako erasoak amaitu zirala. EHE-ko lagunak ez eta Euskal Herrian Euskaraz lema hartu zebeu, amets hori bizirik mantentzeko.

“Ahalik eta azkarren desagertzeko asmoa” daukan mugimendua da.

Herri honek asimilazino prozesua jasaten dihardu urte luzetan, ez azken 31 urtitan bakarrik. Horrek oso zauri sakona laga dau euskaldunongan. Horri bueltia emotia nahi badotsagu eta Euskal Herri bat nahi badogu, aldaketak bihar dittugu, gure jokaeretan, legietan...

Zegaittik ez dabe euskaldunak euskaraz egiten?

Egoera anormal baten bizi gara euskaldunok. Egoera anormal hori normaltzat daukagu, ez dogulako beste egoerarik ezagutu. Lau euskaldunen artera ustezko erdaldun bat dator eta errespetuzkuena danak orderara pasatzia dala sinisten dogu guk geuk, hori da inun idatzi bariko lege ezkutua. Holako egorak beste modu baten gestionatzen ikasi bihar dogu.

Euskeraz bizitzeko aukera egin bihar ei dogu euskaldunok.

Lehen ez baina gaur egun euskeraz bizi danak konzienteki hala izatia erabaki dabelako

da. Jendiari dei egitten dotsagu, benetan euskaldun sentitzen bada, euskeraz bizitzeko pausua be emon deixala.

Burujabetasuna be aittatzen dozue.

Espainiako kontituziñuan gaztelera jakitzia derrigorrezkoa da eta euskera ez. Frantziako legian frantsesa bakarrik dago. Lege horrekin euskaldunok sasi artetik urtetzeko esperantza gutxi, bapez ez esatiarren. Bigarren mailako hitun gara. Ze pasatuko litzake geuk bagenka

“Herri honek asimilazino prozesua jasaten dihardu urte luzetan”

“Bada sasoia euskaldunak sasitik urtetzeko”

Aurkezlea: Zer dago lortzeke zuen ikuspegitik?

Unai: Oin 30 urte eta gaur egun be, euskeraz bizi nahixa garesti dago. Euskeraz bizi nahi dabenak leku batzuetan nekeza dauka euskeraz bizitzia. Horregaittik dinogu “sasi guztien gainetik urten” bihar garala. (...) Horrek nekeza egitten dau egunerokua. Egin berri dogun hausnarketa horretan dinogu badala sasoia hortik urtetzeko benetako pausua emoteko.



Bideo osoa ikusgai dago eitb.com-en.

geure legiak erabakitzeko aukeria? Probatu barik ez dago jakitzerik. Legiak eragin haundixa dauka gugan, beittu bestela tabakoaren legia zela aldatu dittuan ohiturak.

Herriko sarrerako letreruak zera dino: “Soraluzen euskaraz bizi gara”.

Olaitz: Letrero hori euskeraz bizi garanoi ilusiñua pizteko da. Eta bai, asko gara euskeraz bizi garanak eta askoz gehiago euskeraz ulertzen dogunak (%70 baino gehiago) baina oraindik dexente dira erdaraz bizi diranak. Ez daukazu leku danetan erabiltzeko aukerarik.

Anbulatorixuan hiru mediku postu dare, ba hirurak erderaz jakitzia derrigorrezkoa da baina euskararik ez jako batari be eskatzen. Udaletxian bertan be nahikua da bakar batek euskeraz ez jakitzia dana erderaz egitteko. Zegaittik ez dabe alderdi danak erabakitzen udaletxerako hautagai danak elebidunak izan bihar dabela? Hor elkarbizitza.

Soraluzeko EHE zertan dabil momentuan?

Olaitz: Udaletxiakin gabiz lanian. Ikusten dogu ejenplu moduan bera euskalduntzia aurrerapausu haundixa izango dala herri mailan. Kartel, seinalizazino, bando

eta holakuetan euskaria lehentasunezkua izan dadin konpromisuak hartu dittuzte.

Barnekua zailagua da, langile eta zinegotzi batzuk ez dakixelako euskeraz.

Zer esango zontsake herriko euskaltzaliari?

Aldaketak emotia nahi badogu danori tokatuko jaku pixkat mobitzia. Sasitik urtetzia nahi badogu jokabide aldaketak serixo planteatzen hasi bihar dogu. Horretarako danon indarra eta gogua biharko dogu eta gure moduko elkartien laguntza.

Lehen ez baina gaur egun euskeraz bizi dana kontzienteki hala izatia erabaki dabelako da.

Soraluzeko Ametsa zana-ren espiritua berreskuratu bihar dogu.

ZEREMONIA BAT Koldo Eizagirre. “Autopsiarako frogak” liburitik hartua.

Aste gutzian ordeztu gabe eduki du eratzuna eskolako umeak. Agotaren belarria, juduaren izar horia, izurriteak kutsaturiko izugarria da euskalduna eskolan, marka hori, bestek jakin beharrekoa nor, bazterketarako identifikazioa, nortasun kriminal bat. Anormaltasunaren kontzientzia sortzen dio eratzun horrek. Etxeko hizkuntzak Bigorra besterik ez dakarkio. Haurrak bere burua gorrotatuko du gero, asi euskalduna ez bada, euskalduna izateagatik. Euskaraz entzuten zuen hurrenari pasatu behar dio. Salatzailarena egin behar du haur euskaldunak eskolan. Salagarria, euskara da. Gaiztakeria. Salatzekoa, euskalduna. Gaizkilea. Eta lagunena bat euskeraz entzuten duelarik, hari behar dio, eratzunarekin batera, hizkuntza bera eman: eratzuna kentzen duelarik, euskara kentzen du gainetik. Dibortzio linguistikoaren zeremonia da.






GAZTAÑERRE EGUNA



Urtero egiten den moduan, aurten ere Gaztañerre Eguna ospatu genuen. Barixakuan eskolan azoka jarri zen eta bertan gure baserrietako produktuak eta tresna zaharrak erakutsi genituen. Gurasoak ere azoka ikustera etorri ziren.

Astelehenean berriz, bertsoak abestu eta ohiturari jarraituz gaztainak jangenuen, HORI BAI, AURREZ KUKURUTXUAK EGITEN IKASI ONDOREN.





Zein da zuretzat herriko bazterrik polittena?

Zegaittik?

Iker Urkiri, 10 urte



Neri Plaza Zaharra gustatzen jata, lagunekin futbolian jokatu eta oso ondo pasatzen dogulako. Eskolako goiko patixua be asko gustatzen jata, futbolian egitteko zeilaxa daukalako.

Bidane Mendizabal, 9 urte



Neri Plaza Zaharra gustatzen jata bertan lagunekin berriketan egitten dotelako eta oin oso politta laga dabe gainera! Bestela nere etxepia be asko gustatzen jata.

Neri oin gutxi egin dittuen etxe urdinak gustatzen jataz, eskola ondokuak. Lekua be ona dala pentsatzen jata eta kolore urdina oso politta da. Eskolako goiko patixua be leku ona da, lurzoru ona daukalako.

Mouad Hina, 10 urte



Herriko nere lekurik gustokuena, Santa Ana kalia da. Batez be lagunekin patinatzen ibiltzeko leku asko daukagulako! Bestela normalian Plaza Zaharran elkartzen gara eta hau be ondo dago.

Idoia Hernandez, 9 urte



ENBORAPASA

LABIRINTOA

BI BAKARRIK DIRA BERDINAK



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Pentsioen erreforma sinatu berri dute Espainiako Gobernuak eta CCOO eta UGT sindikatuek.

Pentsiñuen erreformia krisixa gainditzeko urtenbidia da?

AITOR AGIRRE

Almazeneko langilia



Ez dakitt soluzinua hau dan. Hamen errua banketxiena da. Eurak beti dauke dirua eta falta jakuenian bueltan emon bihar jakue. Ni zorionez 65 urtekin jubilatuko naiz, 40 urte egin dittut biharrian eta.

MIRARI GALLASTEGI


Garbitzailia



Ez jata bape ondo iruditzen langiliengan gertatzia arazo guztia. Argi dago dirudunak sortu dabela egoera hau eta askok eta askok, 67 urtekin ezingo dogu lanik egin.

VERONICA GALARRAGA

Administratibua



Bai zera! Moztia dauke beste toki batzuetatik! Ejerzitora destinatzen dan dirua beste arlo batzuetan eskertuko litzake. Baina bueno, urtengo gara egoera honetatik, bestetan egin dogun moduan.

MANUEL CALDERÓN

Jubilatua



Zer edo zer egin biharra zeguan, gizarte segurantzaren dirurik ez badago zela ordaindu beste daneri? Hala eta be nahiko ezkorra naiz erreforma honekin, gaztiak eta emakumiak kaltetuko dittualako.

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

TXURITXU

Zuekin gozatzen

943 75 24 43
Santa Ana kalea 22 behea

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

100 URTE
1910 - 2010

943 75 13 45

Korrikak Euskalclip bideo lehiaketa antolatu du

Apirilaren 7an Trebiñon hasi eta 17an Donostian bukatuko da Korrikaren 17. edizioa eta Korrika Kulturalarekin hasteko, Euskalclip bideo lehiaketa jarri dute martxan. Bideo klip formatuan grabatu behar dira bideoak eta gutxienez behin erabili beharko da Korrika 17ren lema: *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari*. Bideoek gehienez hiru minutuko iraupena izan beharko dute eta irabazleak Mac gailu bat jasoko du. Lehiaketako oinarri guztiak: www.korrika.org helbidean daude. Informazio gehiago 943 75 1434 telefonon.



J.J. Altunaren lanak Oreka Arten

Otsailaren 18tik martxoaren 6ra bitartean J.J. Altuna Akizu bergararren margolan eta eskulturak ikusgai izango dira Oreka Art aretoan. Inaugurazio ekitaldia otsailaren 18an egingo dute, arratsaldeko 19:00etan. Gainontzeko egunetako ordutegia honakoa da:

Astegunetan: 18:30-20:30.

Zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

Pil-pileanetik sagardotegira!

Pil-pilean Euskara Elkarteak urteroko ohiturari eutsiz, martxoaren 12an, zapatuan, Hernaniko Altuna sagardotegira irteera antolatu du, trikitilari eta guzti. Autobusa 12:30ean Estaziño kaletik irtengo da. Bazkideentzat 35 euro balioko du txartelak eta bazkide ez direnentzat 40, sagardotegia eta autobusa barne. Izena eman eta txartelak erosteko aukera Iratxon, Arrano eta Gaztelupe tabernetan, martxoaren 6a bitartean.

DJ jaia Gaztetxean

Datorren barixakuan, otsailak 18, DJ -en erritmora dantzatzuko da Gaztetxea. Gaueko 23:00etatik aurrera DJ Apak, DJ Mitkok eta DJ Asik, Soraluze eta Mutrikuko disko jartzaile gazteek dinamizatuko dute jaia. Sarrerak 3 euro balio ditu.

Santa Ageda musikaren erritmora

Pelotazaliendako Eibarren Astelehena dan bezala santa eskian gabiltzanontzat Muneta da katedrala

Aldapan gora hainbeste lagun atera arren ipartsu etxe gutxitan hartu gaituzte hemen bezain irripartsu

Haseran dena izerdi tanta behelaino eta gandu kostata baina hona heltzeak pena merezi izan du

Eta barrura esaten dute zuek ez mantendu patxada hain umoretsu esanez gero gustora sartuko gara.



Maite Zabalarena opilik gozoena

Zazpi San Blas opil aurkeztu zituzten Soraluzeko Udalak antolatutako IV. San Blas opil lehiaketan. Lehen saria, 50 euro, Maite Zabalak irabazi zuen 34 punturekin.

Bigarren, 30 euro eskuratu zituenen tazko irabazlea M^a Angeles Zabala izan zen, 32 punturekin. Hirugarren Inmaculada Matute, 20 euro irabazi zituen, 24 punturekin.



Mikel Hernandez Soralezeko XIV. Txirrindulari Sarian

Soraluzeko Kirol Elkarteak 23 Surtetik beherako txirrindulari gazteentzat antolatzen duen lasterketa otsailaren 27an jokatuko da. Txirrindulariek goizeko 09:45etarako prest egon beharko dute, Mandiola industrialdean lasterketa bertatik aterako da eta. Eskoriatza, Mendaro, Angoiztar, Asentzio Goia eta Berga-

ra igaro ostean, Soralezeko San Andres auzoan bukatuko da, eguerdiko 12:30ak aldera. Aurtengo edizioak herriko ordezkarriz izango du txirrindularien artean, Mikel Hernandez, 21 urteko gaztea.

Urtebete lesionatuta

Mikelek ezin izan zuen iazko frogan parte hartu, hanketako giharretan izandako lesioa zela eta. Medikuek zer izan duen jakin gabe bukatu du Mikelek errehabilitazioa eta oso indartsu sentitzen da datozen hilabeteetan izango dituen frogak gaintzeko. Orain bi hilabete ekin zion Mikelek aurreboraldia prestatzeari eta otsailaren 26an izango du lehen lasterketa, Zumaian. Bertan neurtuko du bere indarra, hurrengo egunean, Soralezeko konfiantza osoz lehiatzeko. Lau urte beteko dira aurtun Mikelek afizionatu mailan lehiatzen duela.



Mikel Hernandez entrenatzen.

Umeentzat mendi irteerak apiriletik aurrera

Soraluzeko Mendi Taldeak Sapiroletik aurrera umeendako mendi ibilaldiak antolatuko ditu berriz ere. Lehenengo irteera apirilaren 3an egingo dute, Xoxotetik Erlora bitartean. Mendi taldeko bazkideek deskontuak izango dituzte irteera denetan eta horregatik, egunotan bazkietza kanpaina jarri dute berriz martxan. Hartara bazkietza egi-

tea nahi duenak otsailaren 14tik 18rako astean egin beharko du, arratsaldero 18:00etatik 19:00-ra bitartean, Pil-pilean Euskara Elkarteke goitzan.

Ibilaldi neurtua martxoan

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko mendi ibilaldi neurtua martxoaren 13an egingo da, Soralezeko. Ibilbidea: San Andres, Askabeitti, Atxolin, Urkiazelai (hemen salda eta txorizorako tartea egingo dute), Ezoz, Mendotzetik pasatu eta kontzejupean bukatuko da frogara. Parte hartzaileentzat kontrol postuak jarriko dituzte ibilbide guztian zehar, denborak neurtzeko. Mendi ibilaldi hau Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatzen du. Informazio gehiago: 665 722683 (Itziar).



Xoxotera irteera egingo dute apirilaren 3an

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Pascual 10
Gonzalez – Laskurain 22

Gonzalez – Laskurain 22
Bengoetxea VI – Patxi Ruiz 7

Berasaluzeko IX – Aretxabaleta 12
Atxotegi – Altuna 22

Atxotegi – Aldape 22
Andreu - Lopez 15

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Usurbil 3-2
Mutriku – Sora (Erreg. B.) 2-2
Sora (Kad.) – Aretxabaleta "B" 1-8
Ilintxa – Sora (Jub.) 4-0
Gure Txokoa – Sora (Erreg.) 1-1
Bergara "B" – Sora (Kad.) 3-2
Sora (Jub.) – Aretxabaleta "B" 1-2
Erreg. B atsedena

AGENDA

PELOTA

Barixakua 11, 22:15ean Urdulizen
Berasaluzeko VIII – Apraiz
Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 12, 17:00etan Ezozin
Sora (Erreg.) – Asoleus C.F.

Zapatua 12, 16:00etan
Unbeko goiko zelaietan
Urki – Sora (Erreg. B)

Zapatua 12, 11:15ean Ezozin
Sora (Jub.) – Urola K.E.

Kadeteek atsedena



ZORION AGURRAK



Peio Arantzeta

Zorionak txapeldun, 5 urte!
Muxu haundi bat etxekuen partez!
Asko maite zaittuegu!
Muuuuuuuaaak!



Bidane Mendizabal

Otsailan 11n 10 urte!
Zorionak potxola!
Muxu haundi bat familia guztixan partez, bereziki Jon eta Nagoren partez.



Zorionak Jokin!!

Otsailan 7xan 2 urte!
Muxu haundi bat etxekuen eta bereziki Maddin partez!



Olatz eta Jone Alberdi

Urtarrilan 20xan 8 urte eta otsailan 9xan 9 urte!
Patxo bana, prexioak!



Unai Calles Agirre

Otsailan 7xan, 2 urte!
Zorionak Unai!!
Besarkada eta muxu asko, etxeko altxorantzat!
Familia guztixan partez!



Zorionak amapolaaa!!

Barruko bizipoza urte askuan mantendu deizula!!
Zaindu ondo-ondo eta Muxu haundi pilaaa bat Pilankideon partez!



Marta Ayora Plata

Otsailan 15ian 19 urte!
Zorionak prexioaa!
Muxu asko etxekuen partez!

jaiotakoak

EÑAUT VALDEREY ACHA



hildakoak

MARIA NICOLASA LETURIA VELAR
MARIA DOLORES VIEVAS RAMIREZ
CLEMENTA OREGI ZABALETA
VICTORIA LOPEZ GAMBRA



LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?

- ▶ **Saria:** EHEko kirol jertsea eta kamiseta



- ▶ **Irabazlea:** Iker Etxabe
- ▶ **Jurdana Laskurain**, Txurruka jatetxeko sukaldarixa da aurreko aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldizkaria@pilpilean.com

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Emilita Altuna

DESASTRE FUTBOL TALDIA

63 urte beteko dattu aurten erretratu honek. 1948xan jasotakua da, Desastre futbol taldiak partitua amaittu ostian etaratakua. Argazkixa, Eliza parian zeguan futbol zelaixan etarata dago, ikastolako frontoian. Sasoi hartan herriko taldiak bertan jokutzen zebeñ futbol partidak, porlanez osatutako futbol zelaixan. Soinian daroiazan jantzixak taldian izena besteko ikusgarrixak dira, arraidun kamisetak, fraka motzak eta tela gogorrez egindako futbol zapatilak.

Argazkixan:

X. Iñurrieta †, J.M. Igartua, Pedro Cacho †, T. Urizar †, J.M. Maiztegi †, Azkoiti †, Pencho Larrañaga †.

Izan direlako gara...



Iragana **gogoratu** dezaten
bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten
bizi izan ez zutenek

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!



Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera, Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!
Astebetean itzuliko dizkizugu!

Esan Soraluze

2011



II. HERRI BATZARRA

EGUNA: Otsailak 16, eguaztena

ORDUA: 19:00

LEKUA: Herriko Antzokia

GAIA: Zeintzuk dira Soraluzek dauzkan behar nagusiak?

JAVIER MESTRE

Elektrizitate eta telekomunikazioak

Tel 943 75 30 98

j_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357

Tentsio baxuko instalazioak erregistro zbk. 20/ccbt-2119

Fitxuri kalea 19-3, ezk. 20.590 Soraluze

Egokitu ezazue zuen antena kolektiboa L-Daren 2. fasearako

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



MARI MAR HARATEGIA

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



Belarrak

**Loradenda
eta
belardenda**

T. 943 75 30 11



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 76
FAX: 943 75 16 10

Elizpe Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETA
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programak)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behea, Soraluze

IRITSI DA PLAENTXIRA ZUNTZAREN INDARRA

50M-ko
DUOA

TB
Digitala

“Nabarituko duzu”

Muguruza García familia,
Plaentxiko bizilagunak

Informa zaitez Plaentxirako
eskalntza bereziaz
Euskalteleko autobusean,
edo Santa Ana kaleko 22.
zenbakian.

 zuntzOptikoa


euskaltel
zuretzat